

A ZE SALTSAK!!

Saltsa hitza zenbat aldiz errepikatzen ote dugu hurrekin gaudenean? Ze saltseroak diren eta ze saltsa antolatu duten maiz errepikatzen dugu. Bai, halaxe da, saltseroak dira baina espermentatu, manipulatu eta ezagutzeko duten grinaren ondorioz sortzen da "saltsa".

Helduok "saltsa"-ren aurrean daukagun erantzuna ez da normalean hurren gustukoa izaten: "Kontuz, zikinduko zara" "bustiko zara", "hautsiko da"... eta bitartean beraien espermentatzeko, ezagutzeko edota manipulatzeko gogoia moztzen diegu. Hurrek behar dituzte honelako uneak, saltsarako aproposak direnak, eta guk eskaini behar dizkiegu goza dezaten.

Gaur eguraldi ederra dago, eta askorik berotzen ez duen arren eguzkia nagusi da. Jolaslekuan hiru mahaia jarri ditugu; sukaldera igo gara eta hainbat janari jaitsi ditugu: arrautzak, laranja, baratxuria, irina, tipula, azukrea, kolakao hautsa, esne kondentsatua, esnea... Bestalde, sukaldeko tresna batzuk atera ditugu, hala nola platerak, koilarak, eltzeak, edalontziak... Dena mahai gainean jarri dugu eta jarraian hurrek hasi dira SALTSAN: irina bota, ukitu... ze sentsazio polita, eskuak txuri-txuriak eta leun-leunak! Laranja zukua atera, esku artean zapalduz ttanttak erortzen dira mahaira, eta esku txuriak zukuaren gainetik pasa eta beste sentsazio bat: esku bustiak eta orakatuak. Esne kondentsatua lodia da, motel erortzen da eta oso gozoa dago. Gatza eta azukrea berdintsuak dira itxuraz, baina zein ezberdinak zapoz! Janariak elkartuz ze nahasketa interesanteak egin daitezkeen! Kolakao adibidez. Edalontzian esnea bota, kolakao hautsa gero, eta nahastu... umm, zein gozoa! Eta gainera beraien sortutakoa! Arrautzarekin kontaktuan egotea oso interesantea eta erakargarria izan da. Eskuetan hartu eta hautsi egin zaie, esku txiki horietan gorringoa eta zuringoa behatz tartetatik irristatuz beraien harridurarako, eta gainera beste aukera pila batetaz ohartzeko parada ematen du: azala zenbat pusketan hautsi daitezkeen eta ze formak hartzen dituen, gorringoa eta zuringoa manipulatzeko ze gozamen den plateran jarri eta sardexkarekin nahastuz, eta... eta... eta...

Ze gustura egon diren hurrek!! Oso zentratuak eta interesatuak egiten ari ziren ekintzan murgilduta. Gozatu dute, espermentatu, manipulatu eta ezagutu, eta guztia "saltsan" arituz!

Hurrengoan nahi baduzue berriz.